



Sagartze elkarteak, bi hamarkada Ipar Euskal Herriko sagarrondo espezieen alde



Euskal Herria - Ekimenak

2011/01/25



1990an inguru bertako zuhaitz sagardunak sustatzeko Sagartze elkarteak sortu zen Ipar Euskal Herrian. Bertako sagarrondo espezie zaharrak galtzen ari zirela oharturik, zerbait egin behar zela erabaki zen. Orduan, arbol zaharrei txertoa egin eta, Baxe Nafarroan desagertzen ari ziren sagar motak errekuiperatzeko asmoz, 30 bat laborarik 16.000 arbol landatu zituzten sagardoa edo zukua egiteko. "Jateko fruituentzat

7000/8000 sagarrondo inguru landatu ditugu ere" gehitzen du elkarteko burua den Pantxika Maitiak.

Sagartze elkarteak bere produkzioa saltzeko posibilitaterik ez zuenez, 29 laborariren artean Eztigar kooperatiba sortzea erabaki zen 1996ean. Geroztik, sagardoa nagusiki eta sagar zukua ere ekoizten dute. Honekin batera ere, elkarteak formakuntza ekitaldiak antolatzen ditu. Izan ere, sagarrondoaren mozte ikastaldia antolatu berri du bertako espezieak diren zortzi sagarrondo diren Donaixtik lur eremu batean.

Bestalde, sagarrondo bat edo beste landatzeko gogoia dutenei elkarteak badituela urteko landareak jakitera eman du Sagartzeak. Hamar bat bertako mota proposatu ditu. Hala nola, Andredenamari, Anisa edo Apez sagarra, Eri sagarra, Gordin xuria, Peatxa etabar. Sagarrondoak otsail hundera arte landatu ahal direla zehaztu du elkarteak.

"Datorren ikastaldia martxoan antolatuko dugu, txertaketa, txertoa eta txertagaiaren hautatzen ikasiko diogu interesatua den pertsonari" gehitu du Maitiak

Elkartearekin harremanetan jartzeko: Pantxika Maitia (06 10 12 81 76)

Gure lurra, gure etorkizuna

soberania alimentaria.tv

